


Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko uztailaren 7a / VI. urtea / 187. zenbakia

Jon Alonso, saiogile

'Idiaren eraman handia' saiakera liburua argitaratu du Jon Alonso itzultzaileak Euskaltzaindia eta BBK erakundeen eskutik. Literaturan dagoen sormen lana, originaltasuna, inspirazioa, jeinua eta antzeko gaiak jorratu dira lan honetan, urte askotako gogoetaren fruitua dena. Liburuaren laburpen gisa, inspirazioa baino gehiago lana dela funtsezkoa azaldu du Alonsok, inspirazioa, idazle batek esan zion bezala ipurdian dagoela, lanean, makinaren aurrean sartutako orduetan, alegia. Hori dela eta, behin 'osagai zerutiarrak' kenduta, sormen prozesua makina batek ere egin dezakeela ohartarazten du egileak, Kalbinoren ideia errepikatuz, eta zera dio: «Garrantzitsuena ez da testuak sortzea, irakurtzea baizik, horixe baita pertsona adimentsuak gorderik daukan zeregina. Eta hala bada, arreta, sentiberatasuna, jakintza eta ezagutza behar-beharrezkoak ditugu, baina zertarako behar dugu inspirazioa?».



Jon Alonso, etxeko bere teilatuan.

JOXE LACALLE

Sanfeminetan zehar EUSKALDUNON EGUNKARIAK atera behar duen gehigarri berezia dela eta, bete-betean ariko gara jaietako alderdi guztiak kontatu nahian. Beraz, iaz bezala, heldu den astean ez da Nafarkaria-rik izango. Hilaren 21ean berriro izango duzue EGUNKARIArekin batera Nafarroako eranskina. Bitartean, bestak giro onean gozatu!

Amen eta omen

AINGERU EPALTZA

Psikosisia

A din kontua izan liteke, noski. Sobera ikusiaren eta ez guttiago entzunen gaitzak gero eta jotago egotearen karga, igoal. Batzuek nekea erranen diote —'mutiko hau unhatu da' zioen kantak—,edo asperdura, nahai-go baduzue.

Afera da sumintzeko gaitasuna bera ere galtzen ari naizela. Alegia, ergelen eta eroen artean hautatu beharri uko egiten diodala. Erran nahi baita, herri barne urratu honen izenean egiten eta erraten diren gehienez eta iazko haizeaz axola bera

dudala jada.

Gero eta mesfidatzenago naiz hitz haundiez eta helburu distiratsuez, gero eta nardatzenago haiberte 'testuinguruari' kasu eman beharrak inor bere egintzen erantzule agertzen ez den bizkitartean. Aldiz —nekearen nekeaz, unhaduraren unhaduraz, asperduraren asperduraz doike—, gero eta ezinbertze-koago ditut lagunarteko solasaldi goxoak eta maite ditudan begiekin begiz begi egiteak so-



rrarazten didan zimikoa, gero eta liluragarriago lau urteko haurren galderak eta lauretan hogeitau urteko zaharren erantzunak, gero eta atseginago nexka gaxteen ixtar beltzaren ikuskari iheskorra eta alkoholaren eta musikaren arteko topaketak eragiten duen xoradura.

Psikosiak zafraturiko hiri hau itxoinaldi larritan amildua dugunean idazten ari naiz. Hortaz, lerro hauek inoren arreta merezi orduko galdua izanen dute be-

ren balio apurra gertakariak zaharrikin paperontzira igorriak. Ez jakin, zer izanen den gaur Iruñean edo Lesakan, ez jakin ontzat eman beharko ez ote ditugun, hondarrean, ezbeharren igerle guztien erran-merranak. Dena dela, festen eztanda kontrario politikoarenganako gorrotoaren hustubide bilaka badadi ere zenbaitengan, etzazuela nigan bila so egile antsikabearen begirada axolagabea baino gehiagorik. Bertzerik da ni harrapatuko nauen zurrunbiloa, bertzerik bere baitan jiraka eramanen nauen zaldizkoa.

GURE AUKERAK

LEHIAKETAK

Atarrabiako udalak 1995ko festetako egitarauaren XI. kartel lehiaketa antolatu du. Lehiaketa Nafarroan bizi edo jaio diren artistek hartu dezakete parte nahi adina obrekin, baina lanak originalak izan behar dute. Lanak aurkezteko epea abuztuaren 30ean akitzen da eta Atarrabiako Kultur Etxean aurkeztu beharko dira, Kale Nagusiko 67. zenbakian.

Bilaketa Agoizko talde kulturalak Tomas Fermin de Arteta Nazioarteko Narrazio lehiaketa antolatu du. Aurkezten diren lan guztiek originalak izan beharko dute, gaztelaniaz idatziak eta ez du beste lehiaketa batean saritua izan behar. Obrek bi orrialdetik seirako luzera izan behar dute eta makinaz pasatuak alde bakar batetik. Lanak uztailearen 28a baino lehen aurkeztu behar dira taldeak Agoitzen duen egoitzan, Francisco Indurain kalean.

ANTZERKIA

'Leyendas de nuestra tierra' izenburuko antzezlan taularatu du uztailearen 14ean, ostirala, Sambhu Teatrok. Ikuskizuna arratsaldeko 20.30etan Bakedano herriko frontoian izanen da.

ZINEMA

'Sra. Doubtfire' pelikula ikusteko aukera izanen dute uztaileak 15ean, larunbata, Muruzabalera hurbiltzen direnek. Pelikula herriko frontoian eskainiko dute.

Araitz Beteluko bailararen Arribe herrian uztailearen 13an 'Zinema paradiso' fimea eskainiko dute. Ikuskizuna herriko plazan izanen da gaueko bederatzietatik aitzina.

MUSIKA

Carlos Vives abeslari kolonbiarra Sanferminetako jaietan ariko da uztailearen 10ean, astelehena, Antoniutti parkean. Abeslaria gauerdiko 12.30etatik goizaldera egonen da bere herrian hain ezagunak diren kokubia eta saltsak kantatzen.

Iruñeko barraketan eta Sanferminetako jaien egitarauan, uztailearen 10ean ere, Patagonia, Baldin Bada, 'Nuevo catecismo catolico' eta Los Huajolotes taldeek joko dute gauerdian. Kontzertua dohainik izanen da.

BERTSO JAIA

Jon Sarasua, Jesus Mari Irazu, Nerea Bruño, Ekintza Landa eta Manu Gomez bertsolariak ariko dira bertsoan uztailearen 13an, asteazkena, Iruñeko barraketan egiten den bertso jaietan.

NAFAR KRONIKA

JON ALONSO

Esplotoa

...ta zerutik zetorkiyen, esplotuba, danba! izigarria izanda, ta geo etzekiyat zomat fanfarre ta zomat yende kalia, neure kontuba galdu diyat, leno kontatzen nitian aneak eta zati lau iten niyubien biño azkeneko enekixen dobla ikusten ote neban, ta alako mintxuria bezala edo alako zeoze inbixat, yendi guzik erraten baitzuen alli alli ta han kalboso bat biño ez baitzan, ta esplikaturteko daukuzue zer daukien bereziik sexofonoa yoten duen kalboso bet, sexofonoa yotenduen inberrrtze kalbosoen artin, eztela sexofonoa, sexofoboa baizikan, ba, ongi ba, sexofoboa joten dauen oinbeste kaskasoil alopezikuen artian. Ta geo yendik erraten zubien, lola, lola, ta nik be esaten nian, lola, bienytü, nik erdaaz alamouz moldatzen najotxaken, taordun bestek kebuenastálalooloa, ta nik, nire artin, ba, beno ba, zernaizuesatia, lotsau ta guzti in nintxuan, enian uste oinbertzeko esitua izengo nizubiela, ta trantzetik eta apuritik ataatzeko erran niotet lolatodosustedes, ta ezeizen niretako, beste baten gaiñin ari ei zubien, ta ordun yin zitzidan morrosku bet, horrek ongi euskaaz, ongi orrek uskaaz gero, e?, ez nik bezala, trakets eta baldar, ta horrek erraten zeraukon lagunai, hura itxultxaile o alakon bat izain zuan, seguru, nola jok 'Ley Foral', ta bestik, 'Foru Lege', ta ordun bestik, ordun 'Foru Deneuve', ta nik, ordun, mosekauttute o, 'Foru BMW?', ta bestik, ez arraiyua, ez horixen, 'Foru Catherine'. Ta orduako nerbiyosuye ta burube nahastue nengokizueke,



etzekiyat olaxen erraten ote dabiyen oingo uskaaz, xubadú xubadú, ta ttorri zekiyat ordubien moru bet, edo bi, etzekiyeeeahht, biño horixen jituen aparatosubak, biño azenolakue, azenariyube, igarri iten zütütizu, o antzeko zeozet, ta hok erraten zitan inbizetinau, ta ni orduan, ordian, nirekulan, nirekulan, a zeplazentik, eta buluzgorrik, eta bei bei, biño ordubian esan ziritxuetelikalikan, lolitarekulan bai, lolitarekulan bai, biño ez hirekulan, baizikan eta ladelospuertosarekulan, zeusteunan bada, ta eskerrak atzekaldian gelditu zen ber-

tzeak baino normalxeagoa emaiten zinan bertze bet, erraiten zuana, ininbiyu, ininbiyu, etziok eta etziya zeeerri gose guztientzako janari, oinbertze zeri izanda, endemas, zeinetan ni ez bainiz ale xume ez oso errerepresentagarri besterik, ta halaxen librau giñinan besta hartan, basatia geo, sanpremiñ erraiten deraukotena, pasatuteko sobera gatxa eztena, paisanajea naiko kabroie eta zerrie dela alde baterat lagata, ta ez seigarrenerakoekilakoetan, ez orixen, okerrago baititüzü gaineakoekulan, yoaki, lalola, lavasca, órdea, edicho.

JAIK



Nafarroa Intsumituaren mar-txa eginen da etzi, igandea, uztaileak 9, Zaragozan dagoen Daroca espetxera Alex Belasko intsumitu iruindarra ikusteko. Dispersioari aurre egiteko eta Estatu espainiarreko espetxe desberdinetan sakabanaturik dauden bost intsumiso nafarren aldekoa izanen da mar-txa. Alex Belasko gazteaz gain, Iñigo Ramirez, Katxo Agirre, Oskar Bizkai eta Karlos Ezkurra dira Iruñetik kanpo espetxeratuak dauden beste lau intsumisoak. Karlos Agirre kenduta, besteak bi urte, lau hilabete eta egun bateko kartzela zigorra daukate. Nafarroa Intsumituak autobusa prestatu du iganderako joan nahi duenarentzat. Irteera goizeko bederatzietan eginen da barraketatik eta bueltatu arratsaldeko zortziretan. Txartelak, bidaia eta bazkaria barne, 2000 pezeta balio du eta eskuratu nahi duenarentzat Pospel, Sua eta Katu tabernetan erosi dezake. Talde antimilitaristaren uste-tan egunotan nahitaez etxetik kanpo dauden gazte intsumitoe-kin elakartasuna adierazteko parada egokia da mar-txa.

ASTEKO PERTSONAIK



Jose Javier Etxeberria
Iuko zinegotzia



Javier Chorrut
Iruñeko alkategaia

Aurtengoan Jose Javier Etxeberria Iruñeko udaletxean Ezker Batuko Azingotziari suertatu zitzaion Sanferminetako suzeria piztea. Egurdiko hamabiak Udaletxeko enparantzako erlojuan jo zuten bezain azkar «iruindarrak, gora Sanfermin Deuna; pamploneses, pamplonesas, viva Sanfermin» oihukatu eta 1995 urteko Iruñeko jai nagusiei hasiera eman zien. 30 urteko Arrotxapea auzokoak astelehenean entseu orokorra burutu zuen eta atzo nahiz eta urduri egon, argi eta ozenki aritu zen bere lanean. Seguruenik, zuzenbide ikasleari altxafueroa bota baino lehen hamaiketako egiteko jan zituen arraultza prejitua eta giharreak lagundu zituen bere papera behar zen bezala egiten.

Gaur, uztaileak 7 eta Sanfermin eguna, osatuko da Iruñeko udala, Ggoizean zehar eginen den biltzar berezian. Bertan, Javier Chorrut CDNko kidea hautatuko dute Iruñeko alkate berria bere alderdiak, PSOE eta EBK lortutako akordioaren ondoren. Azken talde honek asteartean egindako erreferendumean onartu baitzuen CDNko partaidea alkatetzarako onestea. Chorrut ez da berria karguan, 1987tik 1991 biartean egon baitzen alkate UPN taldearekin. Iruñeko alkate berriak, Alfredo Jaime UPNko kidea ordezkatzeko du karguan. Javier Chorrutek 59 urte ditu, ezkondua dago eta bi seme-aita da. Lanbidez aseguru artekaria da eta heldu den lau urte hauetan iruindarrek alkate izanen dute.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenean ostiralerara, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



Leitza



Mila tresna baino gehiago daude ikusgai frontoian.

Garai bateko tresnak ikusgai

I. ARRIZURIETA / LEITZA

Garai batean Leitza etxe eta baserrietan erabiltzen ziren 1.000 tresna baino gehiago daude ikusgai Leitza frontoian igandera arte. Aurrera kirol elkarrekin eta herriko kultur taldeak antolatuta duten erakusketan Leitza 70 etxeetatik lortutako piezak daude.

«Tresna eta ohitura zaharrak» izenburuko erakusketak, joan den mendean edo mende honetan industrializazioa iritsi baino le-

hen Leitza herritarren ohitura eta bizitzaren islada txikia izan nahi du eta egunotan herrian egiten ari den Aste Kulturalaren barne dago.

Leitza frontoi osoa betetzen duen erakusketak hiru zati ditu. Batean, baserriaren eguneroan erabilitako tresnak daude ikusteko. Lixua egiteko kuelak, ura berotzeko latzetik zintzilikatzen ziren eltzak edota pisatzeko eta argia egiteko hainbat eskuargi.

Beste batean, nekazaritzan

aritzeko aspaldian zeuden tresnak topatzen ditugu. Artajorrean aritzeko aitzurra ugari, lurra bueltatzeko goldeak edota belarra biltzeko eskuareak. Azkenean, garraio sistemak eta zaldiari lotzen zitzaizkion gurdiak ageri dira, idiak lotzeko uztarriak edo zaldiaren kapestuekin batera.

Hiru atal nagusi hauez gain, arrantzan eta ehizan erabiltzen ziren aparailuak edota harrobien ustiakuntzan eta errementarian erabilitakoak ikusteko parada du Leitza urbiltzen den orok.

Altsasu

'Igerilekuan ere euskaraz' kanpaina jarri dute martxan

ARBIZU

Igerilekuan euskararen erabilera bultzatzeko kanpaina berri bat antolatu du Sakanako Mankomunitatearen Euskara eta Kirol Batzordeak, 'Igerilekuan ere euskaraz' lelopean. Honen bidez euskararen presentzia eta erabilera bermatu nahi da eta hainbat ekintza izango dira. Esate baterako, Ziordia, Olazti, Urdiain, Etxarri Aranatz eta Lakuntzan haurrentzako ikastaroak euskaraz izango dira, eta Irurtzun eta Altsasun talde bereiztuak izango dira euskaraz edo gaztelaniaz. Gainera, Lakuntza, Etxarri Aranatz eta Urdiainen gainontzeko zerbitzuak euskaraz izango dira.

Iaz antzeko kanpaina paratu zen martxan, eta emaitzak kontuan harturik aurten ere aurrera eramatea erabaki zuten. Horretarako erreparatu egin zieten Sakanako datu soziolinguistikoei. Egun, euskaldunen portzentaia % 35 ingurukoa da, baina eskola eta ikastolen bidez hauren % 75 euskaldunak dira. 1994ko igeriketa kanpaina 800 pertsona inguruk parte hartu zuela kontuan harturik, datu hauek garrantzi handikoak direla ohartarazi dute Mankomunitatean. Ikastaroak ezezik, idazkiak, oharak, kartelak eta abar ere euskaraz izango dira. Halaber, hainbat proposamen egin dira langileak kontratatzerakoan euskara kontuan hartzeko.

Iruñea

Patxi Larretxea nagusitu zen Herri Kirol Txapelketan

IRUÑEA

Joan den larunbatean, Iruñeko peñen Eguneko ospakizunen barnean, eta Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatutako, Nafarroako Iparraldeko Joki Txapelketak ospatu ziren San Francisco Plazan. Harrian Patxi Larretxeak gailendu zuen Mitxel Latasa eta ingudean Jose Antonio Loiarte izan zen lehena. Lasto Altxatze proban Miguel Angel Etxarte izan zen onena, eta txingalarien artean Patxi Larretxea aritu zen finen. Orga Jokoa Miguel Angel Etxegarai izan zen nagusi, eta azken proban, zakulari txapelketan, hain zuzen ere, Berriozarrek menderatu zituen Arraioz eta Basaburuko taldeak. Heldu den igandean, goizeko 12.00etan, beste herri kirol jaialdi bat ospatuko da Iruñean, Foruen Enparantzan.

Kartzelako gaia

Juan Kruz Lakasta

Presoen umorea, ezezagun hori (II)

Bada bai, intsumitu presook gure umore propioa dugu, umore fina, inteligentea, ingelesa, zuzen-zuzenean burmuinera doan umorea hain zuzen ere. Hona hemen harrobi bikain bezain ezezagun horren beste harribitxi bat, 'Elefantea'.

'Elefantearena' bi ronbotako umorea da. Zalantzarik gabe, hauxe da Intsumitu Presoen Kolektiboan lantzen diren txantxen artean lizunena. Honetan, joan den asteko 'Galtzak' izeneko zirisartzean bezala, prakak dira oinarritzko lehengaiak. Hain zuzen ere txandal ez diren galtzak beharrezkoak dira 'Elefantea' egin ahal izateko; txantxa honetan prakak brageta edukitzea ezinbestekoa baita. Halaber, poltsikoak hutsik izan behar dira guztia behar bezala atera dadin.

Aipatu bi elementu horiek lotu eta gero, honako galdera hau egiten zaio gertuen dagoen kideari: «Ikusi al duzu inoiz elefante bat kartzelako patioan?». Berak ezetz esaten duenean, «Bada, oraintxe bat ikusiko duzu» esan eta, 'Elefantea' egiteari ekiten zaio. Lehenik eta behin, aurretik hustutako poltsikoei buelta ematen zaie, kanpora begira elefantearen belarriak izan daitezten. Irakurle fin bezain argia zaren horrek jada asmatuko zuenez, segituan gizonon han-



katarteko zintzilikarioa ateratzen da bragetatik, horrek pakidermoaren tronparena egin dezan. Egia esanda, txantxa falokrata hau gure artean maiz aipatzen bada ere gutxitan egiten da, agian gizon guztiok, intsumituok barne, gure zintzilikarioaren tamainaren inguruan dauzkagun traumak direla medio.

Beraz, bada ikuzu, zure semetxo intsumituak kartzelatik atera eta gero famili ospakizun bat modu horretan alaitzen badu, ez ezazu pentsa eskertzarrekoa dela eta azkar bezain erraz ahanzi dituela espetxean izan den bitartean garbitu dizkiozun hamaika dozena kaltzontzilo; izan ere, asmo txarrik gabeko zirisartzea izan da hori, presoen umore ezezagun besterik ez.



Jaiak Musutruk!

Enrique Garzia Burlatako AEK-ko ikaslea izan da Iruñerriko AEK-k antolatuta duen Jaiak Musutruk! sariketaren irabazlea, 6.562 zenbakia berak zuen eta. Saria, aparta, jakina: bi pertsonarentzat gosari, bazkari eta afariak Iruñeko zenbait jatetxetan, zenzenketarako abonua, pilota partidueterako abonua eta antzerkirako sarrerak Sanferminetan zehar. Iruñea eta Burlatako taberna frankok lagundu dute zozketa honetan.

JON ALONSO

Idiaren eraman handia' Jon Alonsoren saiakera liburua argitaratu berri dute Euskaltzaindia eta BBK erakundeek. Iazko Mikel Zarate Sariaren irabazlea, originaltasuna, inspirazioa eta sormen lanari buruz gogoeta interesgarria egin du egun Nafarroako Parlamentuko itzultzailea den Alonsok, eta idazleen lanari buruz hainbat topikori buelta ematen dio bertan. Bere ustetan, idaztea baino, irakurtzea da garrantzitsuena.

«Irakurtzea da funtsezkoena»


ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Jon Alonsoren liburuak originaltasuna, inspirazioa eta jeinua ditu gai nagusiak, edo, beste hitzetan esanda, literatur sormena. Aitzin pederikian azaltzen duenez, «ez hainbeste zerk bultzatzen duen pertsona luma hartze-ra, nola, behin erabakia hartuta, zer-nolako bide bihurriak korritu behar diren testu bat eskuan paratu eta irakurlearekiko bat egite harrigarri hori ahalezkoa izan dadin» da saiakeran jorratzen dena. Galdera aspalditik dauka jira-bira gogoan Alonsok. «Saia-tzen baldin bazara idazten, nere kasuan bezala, neurri batean normala da kezka izatea gauzak nola egiten diren eta zer bideak erabiltzen diren jakiteko. Zerorrek ere gauzak egiteko zure bidea bilatzen duzun bitartean, horrelako galderekin egiten duzu topo, eta aspalditik neukan burutazioari forma eman diot azkenean».

«Haurtzaroan eta gaztaroan liburua inportantea zen azken belaunaldikoa» izanik, pixkanaka utzi zion gazte izateari eta literaturaren atzealdeari begiratzeko hasi zitzaion. «Aspaldi bizi genuen etxe hura, eta normala zen sukaldia ere ezagutu nahi izatea». Orduan hasi ziren galderak miretsitako idazleei buruz, aukeraturako gai buruz. «Azkenean parekatzen duzu zure esperientzia beren emaitzarekin, eta aldatu egiten duzu idazlearen gainean daukazuen ideia. Igarotzen zara oso idazle listoa, dena buruan daukan horietakoa dela uste izateko konturatzera ez dela horrela». Testuan azaltzen da idazle batek inspirazioaz eman zion giltza: «Inspirazioa ipurdian zego».

EGUNKARIA.— Liburuaren ideia nagusia izan daiteke literaturan ez daudela jenioak, inspirazioa berez daukatenak, baizik eta langileak. Horretarako derrigorrezkoa omen da tradizioa ondo ezagutzea, menperatzea. Letratua behar da izan, horretaz, idazlea. Hori beti horrela dela uste duzu?

JON ALONSO.— Beti ez, ezer ez delako erabatekoa, baina eskema bezala balio du. Gerta daiteke, noski, tradizioaz ezer ez dakien batek bapatean halako lan izu-



'Idiaren eraman handia' da Jon Alonsok karrikaratutako lehen liburua.

JOXE LACALLE

garria egitea, nahiz eta nik uste hori oso zaila dela. Egia esanda, nire baitan ez dut sinisten esaten didatenean basotik ateraden norbaitek izugarriko liburua egin duela. Gehienez ere halako batek egin dezake Neanderthalen garaian egiten zen moduko lan ona.

EGUNKARIA.— Esan daiteke beraz, egileak ezagutzen duen tradizio literarioaren arabera izango dela lana? Hainbesteko eragina dauka?

«Idazle handien marka da gauza izatea hitzez emateko momentu jakin batean kolektibitate oso baten ideia, gogoia, mamia. Eta gainera, besteek baino hobeto ematea».

ALONSO.— Gaur egun, gutxi gora-behera, Mendebaldeko tradizioa bat eta bakarra dela esan daiteke. Nahi diren adar guztiekin, baina bakarra. Azken finean, zuk idazle baten lana leitzen duzunean aurreko guztia ari zara leitzen. Calvino irakurtzen duzu eta akaso Esopo —zerbait esateagatik— ari zara leitzen. Tradizioa hor dago, eta egin behar dena da egokitzea norbaitek egin nahi duenarekin. Egokitze horretan bilatu behar dira norbere bideak. Askotan ematen du hori erdi kopia, plagioa dela, eta oso erraza dela, baina ez da horrela.

Zuk nahi duzuna egiteko eredu bat bilatzea ez da horren garbia.

EGUNKARIA.— Liburu-

an paratu dituzu plagio edo horien adibide batzuk. Ematen du azkenean inor ez dela originala izan, beti aurkitu daitezkeelako haien aurretiko erreferentziak. Zein da, bada, idazle handien ekarpena?

ALONSO.— Gehienetan aipatzen da Virgilioren kasua hori azaltzeko. Ez zen batere originala, kopiatu egin ziolako Homerori,

baina berak egin zuen Grezia zahar horretatik zetorren tradizio literario handi bat latinez eman, latinez landu. Eta hortik etorri da Mendebaldeko kulturaren parte handi bat. Katemil oso garrantzitsua izateko balio izan du, beraz, bere lanak. Tradizio handi horren barruan, garai bakoitzean izaten dira artista besteak baino handiagoak, tradizio horri distira berezia edo handiagoa emateko. Baudelaire, adibidez, ez dut uste originalaren ikuspegitik begiratu behar denik, baina bera gai izan zen lotzeko bere garaiko literatura orduko gizarte berriarekin. Hori izan zen bere ekarpena.

EGUNKARIA.— Tradizio horren zubi egitea, garai berriei egokitztea da, beraz, handien zeregina.

ALONSO.— Garai berriei egokitztea, eta besteen gainetik goratzea lan hori. Hau da, gauza izatea hitzez emateko momentu jakin batean kolektibitate oso baten ideia, mamia. Eta gainera, beste artista askok baino hobeto azaltzea. Cortazarrek esaten zuen berarentzat originaltasuna zela artistak bere garairen kontzientzia bortitz bat izatea, eta kontzientzia horri adierazbide bat ematea.


Originaltasuna, horra kapitulu oso bat betetzen duen ideia. Ba al da idazle originalik, ideia originalik, liburu originalik? Literatur tradizio erromantikoaren arabera, originaltasuna arte obra orori darion ezaugarria da. Obra original hori inspirazioaren fruitua da, eta inspirazioa, pertsona bakandu batzuek, jenioek hain zuzen, duten dohain lurretik kanpokoa. Jon Alonsok azpimarratzen du testuan, hala ere, Augusto Monterroso Guatemalako idazleak gai honi buruz esandakoa. «Idaztera jartzen den hori bi mila eta bostehun urteko oinordetza erabiltzen ari da eta oinordetza horrekiko begirune apur bat beharko luke. (...) Alabaina, ezjakintasanak sentiarazten digu merezi duen eta aurretik askoz hobeki esan ez den zerbait esateko gauza garelak».

EGUNKARIA.— Ez dago, beraz, ezer berririk esateko. Ideia horrekin ez al zara errebelatzen?

ALONSO.— Gai berririk ez dagoela neretako oso garbi dago. Zuk kontatu ditzakezu munduan

«Mendebaldeko literatur tradizioa bat eta bakarra dela esan daiteke. Azken finean, irakurle baten lana irakurtzen duzunean aurreko guztia ari zara irakurtzen».

«Gai berririk ez dagoela niretako oso garbi dago. Kontatu ditzakezu munduan dauden lau gai funtsezko horiek: maitatua izateko denok dugun beharra, heriotza...».



«Saiatzen baldin bazara idazten, normala da kezka izatea gauzak nola egiten diren eta zer bideak erabiltzen diren jakiteko».

JOXE LACALLE

dauden lau gai funtsezko horiek: maitatuak izateko denok dugun beharra, heriotza... gai handienak hor daude. Horiei hainbeste buelta eman eta gero forma berriak asmatzea ere, uste dut oso zaila dela. Zer aldatzen da orduan? XVI. mendean ez zegoela kotxea eta orain bai. Artistak egokitu egiten ditu gizartean dauden aldaketa horiek, eta bere ukitua ematen die.

EGUNKARIA.— Orduan, gaiak betikoak direnez, garrantzitsua goa da forma, kontatzeko modua?

ALONSO.— Ni ez naiz horren aldekoa. Esango nuke gaiak betikoak direla baina beti behar direla azaldu. Celinereen 'Gauaren muturrerainoko bidaia' liburuan azaltzen da gaixoa salbatu ezin izan duen mediku baten adibidea. Sekulako pena du, eta ez daki momentu horretan bere pena horri hitzeko adierazpide ematen. Une horretan azaltzen da liburu saltzaile bat eta Montaigneren liburu bat ematen dio. Liburuan azaltzen da Montaignek,

umea galdu duela eta, bere emazteari bidaltzen ziola Plutarco antzeko egoera batean bere emazteari idatzi zion eskutitza. Gizonak ikusten du eskutitz horretan bere penaren islada. Plutarcorengandik igaro dira milaka

urte, baina sentimendu hori —penari ihesbide ematea— garrantzitsua da eta berriro egin beharra dago etengabe, jakina.

EGUNKARIA.— Liburuan esaten duzu ideia bat bereziki esanguratsua: 'Inportanteena ez da li-

buruak sortzea, baina irakurtzea'. Azalduko al zenuke gehixeago?

ALONSO.— Ideia hori Calvinorengandik hartu dut. Bera ibilia zen Oulipo (Balizko Literatura Lantegia) elkartean, eta horiek

ukatu egiten zuten inspirazioa, esaten zutelako konstrikzioa —hau da, bide eta aukera guztiak aztertu eta ondoren bat aukeratu— egin behar zela. Teoria horren arabera, klasikoek egiten zuten aukeraketa prezeptiba klasikoarekin, hau da, orduko legeen arabera. Oulipo-koen arabera, hori da sormena: inspirazioa baino, aukera guztien artean bideak hautematea. Gaur egun, prezeptiba horiek aldatu egin dira, baina prozesua bera da. Matematikazaleak ere baziren, eta Calvinok planteatu zuen ideia: demagun asmatzen dugula egunean hogeit hamar nobela egin dezakeen makina —sintagmak sortuz, gramatikarekin eta abar—. Calvinok esaten zuen agian hori posiblea zela, baina makinak egingo zituela batzuk oso txarrak eta beste batzuk oso onak. Hori zeinek esan beharko zuen? Irakurleak, ez makinak. Horregatik, literaturan funtsezko ekintza zein da? Irakurtzea. Horretarako behar da sentiberatasuna, arreta, ezagutza.

Euskal saiogintzaren ajeak

A.B. / IRUNEA

Zutabegintzan hainbat urtez egindako lanarengatik ezaguna, Euskaltzaindiak eta BBK fundazioak urtero antolatzen dituzten sarien iazko merezimendua jasotzeagatik argitaratu du Jon Alonsok bere lehendabiziko liburu. Eskuaratean du argia ikusiko duen beste eleberririk, baina hori beste kontu bat da. Nolanahi ere, saiakeran ez zen lehena saiatu, zutabeak saiakera txikiak direla uste dutenak baieztapena onartzen baldin badigute, bederen.

Estrainekoa izanik ere, ezin uka lan aproposa zaiola Alonsori, ideiei buelta eman eta zuku ateratzeko duen gaitasunarengatik. Ezin esan, hori dela eta, lan arrotza egin duela iruindarrak. «Gustura oso egin dut saiakera hau, baina ez da bapateko lana izan, inondik inora, oso prozesu luze baten emaitza baizik. Urte askotako uztak bildu ditut hor, gogoetak eta buruan nituen ideiak uztartu egin ditudalako». Gainera, aipuak, iturriak eta

adierazpenak alderatzea gogo handiz egiten duen horietakoa omen da itzultzailea. «Gisa horretako lanetan aritzea asko gustatzen zait, eta, gainera, uste dut hori dela idazle baten lana: gauzak begiratzea, pentsatzea, alderatzea, moldatzea, eta horren arabera, zerbait egitea».

Saiakera honetan, euskal saiogintzak dituen ajeak ere izan ditu aztergai Alonsok. Hiru dira bere ustetan. Alde batetik, alfabetatze txikia; bestetik, euskal saiogileek ia beti euskal gaiez aritzeko duten joera; eta, hirugarrenik, iraganari begira egotearena.

Azken honetaz jarduten du bereziki luze idazleak liburuaren pasarte batean. «Azken denbora hauetan argitaratu diren saiokak begiratzen da askoz ere ugariagoak direla orain dela bi —gutxienez— mendetako pentsamenduari eginiko erreferentziak gaur egungoari eginikoak baino. Antzineko pentsamendua eskuratu eta landu behar dugula ontzat emarik ere, 'garaikideago'

bihurtzeko garaia heldu zaigula uste dut, eta espero dezagun antzinatasun zaleek jarrera hau onetsi eta ulertzea besteok haie-n ulertzen eta onesten dugun bezala. Lantxo honek etorkizunerantz proiektatu nahiko luke bere burua, iragana atzundu gabe; euskalduna banaiz, gaur naiz euskalduna».

Bestalde, euskal gaietara mugatuko ez den saiogintzari ere garrantzi handikoa deritza Alonsok. «Orain inoiz baino beharrezkoagoa da euskal gaiak ez diren beste hainbat gauzez aritzea; euskalduna banaiz, hitzak deskubritu dituen kontinente guztiak euskaraz bizi nahi ditudalako naiz euskalduna». Bere ustetan, gaiak zabaltzeko egun oraindik urri dugun kritika eta gogoeta bultzatuko luke. «Gaur egungo gaiak tratatzean lortzen dira elkarrizketa eta solasaldiak: proposatzen bada gaurko gai-bat sekulako eztabaidak izaten dira. Hortik sortzen da zerbait, eta sortzen da dinamika. XVI. mendeko zerbait ari baldin bazara...».

«Uste dut gisa honetako lanak direla idazleak egin behar dituenak: gauzak begiratzea, pentsatzea, alderatzea, moldatzea, eta horren arabera, zerbait egitea».

«Euskal gaiak ez diren beste hainbat gauzez aritu beharra dago; euskalduna banaiz, hitzak deskubritu dituen kontinenteak euskaraz bizi nahi ditudalako naiz euskalduna».

Klasiko bitxi
arrant klasiko

Joxemiel Bidador

Altsasuko kaputxinotarren altxorra

Frai Gerardo, Frai Julen eta Frai Joakinen uztak



Bere burua akonfesionaltzat duen gizarte gezurzale apezbelzkor eta liturgiako honetan gure artean aunitzez gehiagok badira apezgaitegiatik pasatu garenok hauxe bera normaltasun osoz onartu nahi dugunok baino. *Verecundia quaestio est?* Hala beharrez. Politiko klase bateko ahalge poliki polita. Porrotaren potta Judas. Halere erratu xamar doake pairaturiko jazoeratik etekin ikasbidekuak erdiesten ez dituen, eskarmentua bederen izan arren. Ene aldetik behintzat, aitor beharra daukat harro franko senditzen naitzela apezgaitegian emandako urte gazteez oroitzenak burura dartzidanean, besteen artean, azken belaunalditako azken ereduatik adibide aurkeztarritzat senti bainaz.

Oraino gogoan badarabilzkit Altsasuko lekaidetxe itzel horretan sartu nintzen lehendabiziko egunak. Football zelai amaigabeak, hiru frontonak, edo erreka gaineko zubi dantzakorra. Urbasako zabaldegian kaputxinotarrek zuten txaleta eta bere igeritoki hormatzailea. Eta elurteak, horiek bai zirela elur beltzak. Frai Miguel zahar zabarra, Migeliko, eta sekula garbitzen ez zuen bere tegietako txerriak, txekor eta txahalak. Zenbatetan egoten ginen korta sabaian bera beha ea ura noiz botatzen zuen esnera gure solasgarrari. Nahikoa anai bazauden. Atezaina, Frai Felix Ollokoa senidea, eragin trafikatzaila ezpada, bai induljentzien estanpetakoa. Santu frantxiskotar eredu perfektua geure idurimen gazteetan isladatzen zigun duela arras gutti zendu zitzaigun Frai Karmelo laboraria, egun osoa baratzean jo ta fuego egon ostean, eta gauez biziki berandu arte kapillan errezatzen aritu ondoren, despentsan burutu gure sagar arpilaketa aunitzetan pattrra botilari itsasirik ezin aska zurrut. Edota Frai Siberio Iberokoa —ez dakit Orokieta abizena zuen honek Orokieta zen beste kaputxinotar famatuarekin harremanik zuenentz, hau da, Ramon Goikoe-txea Orokieta, Frai Ebangelista Iberokoa, 1906. urtean *Ami Vasco* izenburuko euskaltzaleendako eskuliburua agertarazi izan zuena, edo 1982.eko apirilaren 8an, Iruñeko eliz nagusian eta Aralarko aingeruaren etorrera aprobetxatuz,



abertzaletasuna aldarrikatzeko sermoia bota zuena—, *fokolari-noen* talde erdiopustiarraren bi-deetan gu abiatzeko saio ez oso naroak egiten zituena.

Baina pertsona oso ezagun hauen artean baziren Holliwoodeko filma baten gidoi hornitzaileak lasai aski izan zitezkeenak. Biziki bitxia suerta dakioket nihorri egun Frai Gerardo Burlatakoaren historia. Iruñeko edo Mañuetako semea zen mende izena zuen Joakin Iriarte, Santo Domingo azoka ondoko pilotaleku zaharran pilotari famatua genduen, mañuetero horietakoak, apostuzale amorratua omen, betiere hormaren zulo ikusezinen bilatzailea pilotaren errebotetarako ere. Harek, Frai Joakinek, ederki ongi tratatzen gintuen, ongikiro, txokolate eta irasagar umeldugabeak bere zeldaren lehiotik noiznahi ematen zizkigula. Primeran irakatsi zigun tomateak bere puntuan hartzen inbernatokitik, egunez eta gauez naski. Hura, Altsasura arribatu baino lehen Filipinetan misiolari egon zen. Tagaloz ederki moldatzen zen, baita ingelesez zertxobait ere. Hortik zetorkion izena *setter* arrazako komentuko txakurrari, *Black* deitzen baitzen nahiz Ondarruko apezgalkide batek esan blaka txalupetan paratzeko bidea zela.

Altsasuko komentu zaharrea bazegoen beste misiolari berezia adinak akitua larogean hamar urte inguru baitzituuen orduan, Nikolas Barrenetxea Uribasterra, Frai Julen Igorrekoa. Hauxe gazte zelarrik Txinara abiatu zen, eta bertako iraultzak harrapatu omen zuen, espeteratua egonik urte frango. Txineraz arras ongi bazakien elekatzen, alabaina guk sekula ez genuen aditu. Euskaraz ederki izkiriatzen zuen, eta *Itarka* edo *Motxogane* izengoitiaz sinatzen zuen aunitzetan. Bere euskarazko lanen artean, II. Batikano batzarren agiriaren itzulpenak eta iruzkinak eginak zituen, baita Txinako egonaldiaz *Mao tse tung* izenburuko kronika ere. Akademiak Euskaltzain urgazle izendatu zuen 1983. urtean.



■ Iruñeko Hiria Xake Torneo itxiko seigarren ihardunaldiko partida, 1995eko urtarrilaren 2an jokatu.

Veselin Topalov, 2.645 ELOkoa (Bulgaria)-Manuel Rivas, 2.520 ELOkoa (España).

1.e4, d6; 2.d4, Zf6; 3.Zc3, c6; 4.f4, Db6; 5.a3, Ag4; 6.Dd2, e5; 7.h3.

Orain joko kombinatorioa azalduko da. Emaitez beltzen kalterako izanen dugu.

7....., d4; 8.Za4, Dc7; 9.g4, b5; 10.Dd4, a4; 11.g5, fz-d7; 12.Da4.

Peoi bat gehiago eta peoiak erregearen eraso zain

egotea dira txurien lorpenak.

12....., Zc5; 13.Dd4, bz-d7; 14.Zf3, Gb8; 15.Ac4, Ze6; 16.Ae6, e6; 17.g6.

Torlojuari beste bihurritua. Beltzak kokilduta daude; txuriak, ordea, harrotuta.

17....., h6; 18.Zg5.

Ikus koadroa. Posizioak aukera asko ematen die txurie. Beltzek presioa moztu nahiago izan zuten, kalitatea galdu arren.

18....., g5; 19.Gh8, Db6; 20.Db6, Gb6; 21.Ae3, f4; 22.Af4, e4; 23.Ae3.

Beltzek etsi zuten. Ez zegoeb zer eginik.



Beste garai bateko merkatu feriak berpiztuko dira uda honetan Nafarroan zehar. Erosgaiak ez ezik, buhameak, abadeak eta garai batean gune hauetan usu ibiltzen ziren pertsonak agertuko dira, giroa sinesgarriagoa egiteko. Tuteran hasiko dira heldu den asteburuan, eta ideia Nafarroako Janari Artisanen Elkartearena izan da, euren produktuak ezagutarazi nahian.

Antzinako merkatuen etorrera

IRENE ARRIZURIETA / IRUÑA

Nafarroako Janari Artisanaren Elkarteak udan herrialdeko herri desberdinak ibiliko dituzten merkatu ibiltariak prestatu ditu, sasoi batean egiten ziren bezalakoak. Helburua, saltzeaz gain, erosleari ongi pasatzeko parada ematea da, elkartekoez azaldu dutenez.

Joan den urtean Nafarroako Gobernuak ateratako lege batek janari artisaia zer zen arautu zuenez geroztik sortu zen Nafarroako Janari Artisanaren Elkarteak. Bertan, herrialde osoan zehar banaturik dauden 20 enpresa txiki daude. Elkarteak, batez ere, ferietara denak batera joateko eta publizitatea guztien artean egiteko sortu dute, eta horren erakusgarri dira Bartzelona eta Bordeleko ferietara beren produktuak aurkezteko egin dituzten bisitak.

Baina elkarteko kidea eta ferriako alkatea den Jesus Ordunak ekimenaren aurkezpenean adierazi zuenez «tarte bat» gelditzen zitzaizen beraien produktuak ezagutzera emateko: salmenta zuzena, Enpresa hauentzat «benetan garrantzitsua» da saltzeko modu hori, Ordunak azaldu zuenez. Ondorioz, produktua non eta nola bideratu ikertu ondoren, konturatu ziren merkatu «serio» aurkitzea izanen litzatekeela aukera. «Hori dela eta, garai batean egiten ziren feriak antolatzea pentsatu dugu», dio Ordunak. Erdi Aroan oinarrituko den merkatu honen helburua, bai jateko produktuekin bai artisaia erara egindakoekin osatutako feria nagusia egitea litzateke, «gure kulturaren, bizitzaren eta jendearen ezaugarriak erakutsiz eta uztartzuz».



Merkatuotan ohiko produktuak erosi ahal izango dira, baina denak artisaia eran eginak.

XOUSE SIMAL

MERKATU BEREZIKI GIROTUAK

Merkatu hauek Erdi Arokoen kutsua izanen dute eta garaiko giroa sortzeko ezaugarri bereziak. Horretarako, merkatua kokatuko den gunea beilari, bandera eta ezkutuek apainduko dute. Karriketako giroa alaitzeko hamasei pertsonako talde batek garai hartako pertsonaia esan-

guratsuenak antzetzuko ditu. Beraz, ez da harrizkoa izanen sasoi hartako merkatuetan aurkitzen ziren itsu, noble, emagalduta edota elizgizonekin topatzea. Pertsonaia hauetaz aparte titiriteroak, malabarrak eta musika joleak ere izanen dira herrietako karriketan barna. Hau egiteko udan zehar joaten diren herri

desberdinetako kultur taldeen laguntza izanen dute, bertako pertsonaia eta istorio ezagunak bezeroei eskaintzea baita helburua.

Merkatu bitxi hauetan etxean egindako eztiak, gazta, pastak, lukainak, pate edota sagardoa salduko dira. Janaria ezezik, bestelako tresneriak ere edukiko du

Merkatuotan itsu, zaldun, emagalduta, elizgizon, titiritero, malabar eta musika joleak ariko dira, gunea girotu nahian.

bere txokoa. Bertara joaten denak zilarrezko bitxiak, zurezko kaxak, eskuz egindako larruzko zapatak, txukinez landutako alfombra, zeramika produktuak eta eskuz egindako pilotak topatuko ditu salgai, besteak beste, postuetan.

DIRU BEREZIKI EROSI Baserritarren Kuxaren laguntzarekin elkarteak giroa ezezik salerosketak ere berotzeko garai bateko diruarekin ordaintzeko aukera ematen dio erosleari. Hau dela eta, banketxe ibiltari bat ariko da herriz herri uda osoan merkatariekin batera. Erosketak egiteko hiru moneda desberdin aterako dira: florina —1.000 pezetatoko balioarekin—, sueldoak —100 pezetakoarekin— eta karlina —25 pezetakoarekin—. Moneda hauekin merkatuko produktuak eskuratzen dituenak ehuneko hamarreko beharpena izango du. Merkatuan 30 artisaia salduko dituzte beraien produktuak: zortzi, elkarteko partaideak izanen dira, beste hamabi ferietara beti joaten direnak eta beste hamarrek merkatua egiten den herrietakoak.

Proiektua aurrera eraman ahal izateko udan zehar bisitatuko dituzten herrietako udalen laguntza ere izan dute, hauek prestatu baitira behar duten azpiegitura guztia emateko eta uzteko.



Pate saltzaileak izanen dira, besteak beste, feria hauetan.

Tuteran estreinakoz

I.A. / IRUÑA

Merkatu ibiltariak udan Nafarroako herri desberdinak bisitatuko ditu. Saltzeaz gain, eroslearentzat aisialdia eskaintzeko beste era bat izan nahi du garai bateko merkatuak, jendeak ongi pasatzeko parada izatea gura baitute antolatzaileek.

Ibilbidea Nafarroako Erriberan hasiko dute. Tuteran uztailaren hamaseian eta hamazazpian egonen dira bai merkatariak bai karrikak eta merkatua alaituko duten hamasei antzezleak. Hil honetan bertan baina hegoalde

iparraldera joanez, hogeita bi eta hogeita hiruan Lekunberrira hurbilduko dira.

Abuztuan, berriz, bostean eta seiaren Erronkarira egingen dute bisita. Hamabian eta hamahiruan Urantzian, eta hemeretzi eta hogeian Erriberrin izanen dute merkatu berezi honek eskaintzen dituen produktuak erosteko aukera.

Irailan, —nahiz eta oraindik erabat zurrak ez izan—, eta udan zehar egingen diren merkatu ibiltari hauen joan-etorriak akitzeko, Zangozara hurbilduko dira merkatariak.

«Irratiak indarberritu egiten nau»

EDURNE ELIZONDO / IRUÑA

Napardi gastronomi elkar-teak urtero banatzen duen Urrezko Oilarra (Gallico de oro) Gregorio Gonzalez Morenok, don Goyok, alegia, jasoko du aurten. Napardik «betiko iruindarra eta pertsonaia herrikoia» delako emanen dio Gregorio Gonzalez hamargarren Urrezko Oilarra. Irratiaren munduan orain dela 50 urte inguru hasi zen eta egun oraindik bertan jarraitzen du.

GONZALEZ.—50 urte daramatzat irrati munduan eta jendeak ezagutzen nau. Betidanik entzuleek hurbil sentitu dituzten saioak egin ditut eta nik uste dut horregatik eman didatela saria, mundu guztiak ezagutzen nauelako eta mundu guztiak atsegin dituen saioak egin ditudalako beti. Haur eta zaharrentzako saioak, Caritas edo La Mecaren aldeko saioak, Osasunari buruzko saioak, denetarik egin ditut nik 50 urtetan. Garai hartan mundu guztiak

ondoren, irrati munduan jarraitzen duzu oraindik. Ez al duzu uzteko asmorik?

GONZALEZ.—70 urte ditut eta jubilatua nago baina oraindik badut ordubeteko saioa egunero Radio Popular irratiaren. Irratia nerretzat entretenimendua da, zaletasuna eta beharrezkoa dut. Burua argitzeko balio dit eta arduratuta nagoen, irratiara joan, nere saioa egin eta indarberrituta ateratzen naiz handik. Nere lana ezin dudala egin ikustean utzi-

beharra dago, baina freskotasuna galdu gabe. Gaur egun, hala ere, eztabaida gehiegi egiten da irratiaren eta politika da nagusi saio guztietan.

EGUNKARIA.—Ba al dago bereziki gogoratzen duzun saiorik?

GONZALEZ.—Bai, noski. Franco hil zenean, adibidez, trantsizio garaian, oso saio berriak egin genuen eta jendea hitz egiteko aukera eman genion, hainbeste urte isilik egon behar izan ondoren. Entzuleen erantzuna izugarria izan zen, baita gogorra ere batzuetan.

EGUNKARIA.—Sanferminak direla eta, 25 urtez korritu zenuen zuk entzierroa.

«Informatiboagoa da egungo irrati eta atzean gelditu dira garai bateko irrati nobela eta antzerki saioak».



ALBERTO BARANDIARAN

Urte guzti hauetan egindako lanaren emaitza da uztailaren 12an jasoko duen saria.

EGUNKARIA.—Zer iruditzen zaizu Napardi elkar-teak emanen dizun saria?

GREGORIO GONZALEZ.—Egia erran, ezuste handia izan da, ez bainuen inondik inora espero. Hasieran ez onartzea pentsatu nuen, gehiegizkoa iruditzen zitzaidan eta, baina azkenik, Napardi elkarteko lehendakaria etorri zen nerekin hitz egitera eta aho batez aukeratu nindutela erran zidan. Onartzea erabaki nuen. Oso harro nago eta ohore handia da nerretzat sari hau jasotzea.

EGUNKARIA.—Betiko iruindarra eta pertsonaia herrikoia zarela eman dizute saria. Zer erran nahi du horrek zuretzat?

ezagutzen ninduen, edo, hobeto erranda, nere ahotsa ezagutzen zuten, baita gaur egun ere, eta hori eskertzekoa da.

EGUNKARIA.—Datorren asteazkenean emango dizute Urrezko Oilarra. Nola ospatuko duzue?

GONZALEZ.—Hamaiketako prestaketa dute lehenik Napardi elkartean bertan. Ondoren bazkaria egingo dugu elkarteko bazkideekin batera, eta azkenik zezenketara joango gara arratsaldean. Emaztea, noski, nerekin egongo da egun guztian, egun batez emakumeek ere Napardin sartzeko baimena izango baitute, urtero bezala. Salbuespena da, gizonentzako elkartea baita, gastronomi elkar-tea gehienak bezala.

EGUNKARIA.—50 urte egon

ko dut irrati mundua.

EGUNKARIA.—Urte hauetan zehar asko aldatu al da irrati?

GONZALEZ.—Bai, noski. Ni hasi nintzenean Radio Requeten lan egiten nuen —gaur egungo SER katearen Radio Pamplona— eta hori zen zegoen bakarra. Saioak familia girokoak ziren eta mundu guztiak ezagutzen zuen elkar. Gaur egun, emandegi asko dago eta saioak ere ezberdinak dira. Profesionalagoa da egungo irrati eta atzean geratu dira irrati nobela eta antzerki saioak. Nik, hala ere, betiko ildotik jarraitzen dut gaur egun ere, eta saio atsegina egiten saiatzen naiz, haur, gazte edo emakumeentzat atsegina den saioa. Aldaketak gertatzea ezinbestekoa da eta egokitu

GONZALEZ.—Bai. 40eko hamarkadan edo hasi nintzen entzierroa korritzen eta 25 urtez aritu nintzen. Askok erraten dute orduan jende gutxi ateratzen zela baina hori gezurra da. 1920 urte inguruko argazkiak ikusita, noski, garai hartan jende gutxi ateratzen zen, baina ni hasi nintzenean multzo izugarriak sortzen ziren. Bat baino gehiagotan gelditu nintzen ni harrapatuta Estafeta kalean.

EGUNKARIA.—Irratia bezala, asko aldatu al dira Sanferminak orduz geroztik?

GONZALEZ.—Bai horixe. Masifikatu egin da jaiak, emakumeak ere parte hartzen baitu. Egun haur, gazte eta emakumeak, guztiak ateratzen dira kalera jaietan eta oso ongi iruditzen zait. Hala ere, zatarra ere bihurtu dira neurri batean Sanferminak, zikinkeria besterik ez da ikusten txoko guztietan eta hori lotsagarria da.

Gregorio Gonzalez

KAZETARIA



SOSLAIA

Hamaika istorio bitxi

Gregorio Gonzalez Moreno 1925. urtean jaio zen Iruñean, Estafeta kaleko laugarrenean. Orain dela 50 urte hasi zen irrati munduan lanean, garai hartako Radio Requete-n, hain zuzen ere. 63 urte zituela jubilatua zen baina ez du, ordea, irrati utzi. Gaur egun, ordubeteko saioa egiten du egunero SER katearen Radio Popular-en. Bere karrera luzean denetarik egin du Gregorio Gonzalez eta berdin zitzaion haurrentzako saioa aurkeztu edo Osasuna taldeko partiduak zuzenean erretransmititu. Hamaika istorio bitxi bizitzeko aukera ere izan du irratiari nafarrak, behin baino gehiagotan.

NOSKI JATOR

© Zaldi EROA

